










Prebentzioa, gure lehentasuna

Gure udalerriko arrisku nagusiei buruz herritarrak informatzea eta sentibilizatzea funtsezko elementuak dira prebentzio eraginkorra lortzeko. Udal taldeak erabaki du Udalaren Babes Plana egitea, herritarren segurtasuna zaintzeko eta haien ondasunak eta ingurumena ahalik eta hobekien babesteko. Krisi-egoerari buru egiteko hartu beharreko prebentzio- eta sorospen-neurriak definitzea da plan honen helburua. Udalaren Babes Plana egitean, eskatua zaion erregelamenduzko betebeharra ere betetzen du. A.N.B.U.I.D horrek gure lurraldea mehatxatzen duten arriskuak aurkezten ditu, errespetatu beharreko segurtasun-kontsignak, udalerriak aurreikusiriko alerta-bideak, larrialdiz-zenbakiak eta, udalerrian horrelakorik gertatuz gero, jarraitu beharreko desmartxak gogorarazten ditu. Horrelakoetan, zaintza eta elkarri eman laguntza beharrezkoak eta salbatzaileak dira.

Urruñako auzapeza

GURE UDALERRIAK JASAN DITZAKEEN ARRISKU NAGUSIAK :

-  Uholdea
-  Itsas urez gainditzea
-  Ekaitza
-  Barradera haustura
-  Oihanetako suteak
-  Lur-mugimendua
-  Lurrikara
-  Gai arriskutsuen garraioa
-  Pandemia
-  Berote handia

NATURA HONDAMENDI EGOERA AITORTZEKO ERABAKIAK (CatNat)

- 11 erabaki CatNat **Uholdea**
- 2 erabaki CatNat **Lur mugimendua**
- 1 erabaki CatNat **Atmosferari lotu fenomenoak**



NIRE HERRIKO ALERTA BALIABIDEAK

Herritarrei alertaren berri emateko, udalerrriak baliabide hauek ditu:



Telefono-deiak



Atez atekoa



Argi-panelak



Deien
automata



Bozgorailuak



Sare sozialak



NON BABESTU ebakuazio-kasuetan?

Ebakuazio kasuetan, harrera-zentro hauetako batera joatea aholkatzen dizu udalerrriak:



“Adinekoen biltokia” H. Zentroa (Pausun), “Erabilera anitzeko sala” H. Zentroa (Hiribarnean), “Posta” H. zentroa (Hiribarnean), “Oletako kapera” H. Zentroa, “Erabilera anitzeko sala” H. Zentroa (Zokoan)



ZENBAKI & LOTURA BALIAGARRIAK



Herriko Etxeko zenbakia : **05 59 47 44 44**
Astreinte : **06.18.77.71.60**



Elkargoa :



Su-hiltzaileak : **18 edo 112**



Polizia/ Jendarmeria : **17**



Herriko polizia :



Herriko Etxeko gunea : www.urrugne.fr



Prefektura : www.pyrenees-atlantiques.gouv.fr



Inforoute : www.inforoute.le64.fr



Météo France : www.meteofrance.com



Vigicrues : www.vigicrues.gouv.fr



France Bleu : **101.3 FM**
Gure Irratia : **106.6 FM**



Nolanahi ere, errespetatu agintariak eman segurtasun-kontsignak.



U HOLDE ARRISKUA

Uholdea, uretatik kanpo egon ohi den eremu bat urpean gelditzea da; zalua edo motela izan daiteke. Alde bat urbanizaturik dagoenean, gaintitze horiek pertsonengan, ondasunetan, ekipamenduetan edo jarduera ekonomikoetan duten eragina biziki kaltegarria izan daiteke. Prebentzio-neurriek, nola segurtasun-portaerek, ondorio horiek murriztea eta herrien, lurraldearen eta jarduera ekonomikoaren erresilientzia hobetzea ahalbidetzen dute. Uholdeen erreferentzien helburua da herritarrak uholde-arriskuaz sentsibilizatzea, eta arriskuaren kontzientzia sustatzea, etorkizunean ur-goraldi handi bat gerta daitekeela oroitaraziz.



Uholdeen erreferentzien helburua da herritarrak uholde-arriskuaz sentsibilizatzea, eta arriskuaren kontzientzia sustatzea, etorkizunean ur-goraldi handi bat gerta daitekeela oroitaraziz.

SEGURTASUN-KONTSIGNAK

AURRETIK



"myPredict" deskargatu smartphone batean.



Bateriadun irratia eskura izatea (Radio France, France info).



Arriskuei buruz informatzea (Herriko Etxea, prefektura)

BITARTEAN



Saihestu debaldeko mugimenduak.



Ez joan eskolara haurren bila.



Ez telefonoa erabili, beharrezkoa izan ezik.



Agintariak galdeginez gero, **zoaz harrera zentro batera.**

UREN GORATZE ABISUAZ OHARTZEAN



Babestu zuhaur eta zure etxebizitza.



Gai gogorrez egin eraikuntzan gerizatu. Goiko solairuetara igan. Ez jautsi lur azpikoetara.



Elektrizitate/ gasaren hornitzea moztu.

ALERTA UNEAN BIDEAN BAZABILTZA:



Ez ibili urak hartu eremu batean. Urrundu ibai, ur-bazter eta zubietatik.

ONDONTIK



Berrezarri sarea sozialak egiaztapen teknikoa egin ondoren bakarrik. Ziurtatu iturriko ura edangarria dela.



Egin kalteen inbentarioa. Deklaratu ezbeharra lehenbailehen asurantzara egileari.



Aireztatu eta desinfektatu barneak.

Inguru arriskutsuak



ITSASOKO URAZ GAINDITZEAREN ARRISKUA

Itsasoko urek itsas hegia gainditzea aldi baterako urpetze bati dagokio, kontrako baldintza klimatiko eta maregrafikoengatik gertatzen dena (ezohiko mareak, uhin handiak, haize bortitzak). Itsasoaren mailaz peko lurak urperatzea eragiten du usu, baina batzuetan gainekoak ere bai, itsas uraren aurtikitzeek babes-obrak gainditzen badituzte. Uhinak kostari egin oldarrek ere eragin handia izan dezake obretan eta kostaldeko erronketan. Fenomeno horrek ondorio larriak izan ditzake biztanleriarentzat, ondasunentzat (portuko instalazioak suntsitzea, etxebizitza-auzoak urez betetzea, laborantza-galerak, etab.) eta/edo ingurumenarentzat (hondartzen, dunen, lehorreraturiko itsas ugaztunen suntsiketa, etab.)

SEGURTASUN-KONTSIGNAK

AURRETIK



Zabalik atxiki irteera kontrol elektrikodunak, lekuak hustu behar izanez gero (ate elektrikoa, pertsianak...).

Babestu urperatuak edo eramanak izan daitezkeen ondasunak.



Bateriadun irratia eskura izatea (Radio France, France info)

BITARTEAN



Saihestu debaldeko mugimenduak. Lekuz aldatu behar izanez gero, itsasertzeko gunek ekidin.



Ez joan haurren bila eskolara, segurtasun-neurriak aktibaturik



Hetsi atek eta leihoak eta estali beheko irekidurak.



Moztu gasa eta elektrizitatea..



Gai gogorrez egin eraikuntzan gerizatu. Goiko solairuetara igo. Ez jautsi lur azpikoetara.



Ez deitu telefonoz, Lineak sokorrientzat libratzeko.

ONDONTIK



Berrezarri sare sozialak egiaztapen teknikoak egin ondoren bakarrik.



Aireztatu eta desinfektatu barneak. Berotu, ahal bezain laster.

**KASU GUZIETAN, ERRESPETATU AGINTARIEK EMAN
SEGURTASUN-ARAUAK**



EKAITZ ARRISKUA

Ekaitza fenomeno meteorologikoa da, eta eremu geografiko zabal batean haize azkar eta bortitzak sortzen dira. Fenomeno horrek ondorio larriak izan ditzake biztanleriarentzat, ondasunentzat (askotariko objektuak erortzea: teilatuak, tximiniak, garabiak, karpak, etab.) Linea elektrikoak eta komunikazio-lineak hondatzea, garraio-sareak kaltetzea, etab.) eta ingurumenarentzat (deforestazioa, lurzoruen infiltrazio-galera eta uholde-arriskua areagotzea,...)

SEGURTASUN-KONTSIGNAK

AURRETIK



Gorde edo finkatu eramanak edo kaltetuak daitezkeen objektuak (lorategiko altzari, askotariko objektuak).



Egiaztatu egitura arinen (berotegi, beranda, ttattolak) finkatze egokia.



Itxi ateak eta kanpoko leihoak.



Ahal den neurrian, etxeratzea hobe.

BITARTEAN



Ahal dela, etxean egon.



Ez egin debaldeko joan-etorriak, eta abiadura murriztu beharrezko leku-aldatzeen kasuan.



Ez hasi teilatuak konpontzen.



Ez ibili oihanean edo kostaldean.



Entzun tokiko irratiak.

ONDOTIK



Berrezarri sare sozialak, egiaztapen teknikoak egin ondoren bakarrik.



Ez hunki lurrera erori kable elektrikoak.

**NOLANAHI ERE, ERRESPECTATU AGINTARIEK EMAN
SEGURTASUN-JARRAIBIDEAK.**



OIHAN-SUTEEN ARRISKUA

Oihan-sute bat kontrolik gabeko sua da, gune oihantsu batean hedatzen dena. Berez edo istripuz sortua; urte osoan gerta daiteke, baina udaldia du aldekoena. Sutearen hedapena, nagusiki, landaredi-motak (landak, sasiarteak eta larre tokiak dira hunkituenak), baldintza meteorologikoek (haize azkarra, bero handia) eta erliebeak zehazten dute.

SASIAK GARBITZEAREN GARRANTZIA

Suteen aurkako arriskua prebenitzea da zure etxebizitzaren babes-bermerik onena, oihan-suterik gertatuz gero. Beraz, belar-sastrakak garbitzeko eginbideak bete behar dituzu (gutxienez 50 metro etxebizitzaren inguruan) eta segurtasun-perimetroa etengabe mantendu behar duzu (Oihan Kodearen L 322-3 artikulua). Belar-sastrakak garbitzeak landare estalduran etena eragiten du, sua motelduz edo berdin geldiaraziz.

* Belar-sastrakak garbitzeko eremua inguruko ingurunearen arabera modulutzen da. Informazio gehiago nahi izanez gero, jarri harremanetan DDTrekin.



SEGURTASUN-KONTSIGNAK

AURRETIK



Etheen inguruak eta sarbide diren guneetan sasiak garbitzea, zure etxebizitzaren segurtasuna ahal bezainbat bermatzeko. Ez atxiki erregairik etxe inguruan.



Aurreikusi suaren kontrako baliabideak (ur-puntuak, igerilekuko motoponpa, ...)



Arriskuei buruzko informazioa bildu (Herriko Etxea, prefektura).

BITARTEAN

USTEKABEKO SUTE BATEN AITZINEAN:



Jakinarazi suhiltzaileei lehenbailehen eta ahal bezain zehazki (18 eta 112).



Libratu sarbide eta ebakuazio-bideak; inguruak ureztatu.



Hetsi kanpoko leihoak, atek eta leihoak; ongi estali oihal bustiekin.



Hetsi gas eta produktu sukoien balbulak..



Ez hurbildu oihaneko su batetik; ez etxetik atera agintarien manuz ez bada. Naturan, haizea bizkarrean duzula, urrundu su-frontearen alboetara.



Gai gogorrez egin eraikuntza hurbilenera joan berehala.



Ez erabili zure ibilgailua.



Entzun irratia (France Info, France Bleu).

ONDOTIK



Egin kalteen inbentarioa. Deklaratu ezbeharra lehenbailehen asurantzaren egileari.



Barneak aireztatu eta desinfectatu.

Inguru arriskutsuak

Arrisku hori lurraldearen hegoaldean gertatzen da, Larrungo hegaletan, baina baita Dongoxen Bordan, Fagadi Berrin, Bixikenean eta Erlaitzeko errepidean ere.



BARRADERA-HAUSTURA ARRISKUA

Barradera ibai baten ohea mozteko egin obra da, ur-bolumen handiak atxiki behar baitira edateko ura hornitzeko eta ureztatze-beharretarako. Urtegia haustean, obraren haustura partzial edo osoaren ondoren, ur-bolumen horien askatze bortitza gertatzen da. Hausturaren ondorioz, gairiditze-uhina sortzen da, eta berehala hedatzen da ibaian behera. Ondorioz, uraren maila biziki igaten da eta uholde lasterrak sortzen. Obra batzuetarako, Esku Hartzeko Plan Partikularrak (PPI) ibaian behera dauden populazioen informazio-, alerta- eta ebakuazio-modalitateak definitzen ditu. Plan hau Prefekturaren edo Sorospen Zerbitzuen informazioaren ondorioz aktibatzen da. Galdetu zure Herriko Etxeari alerta- eta segurtasun-modalitateak zein diren jakiteko.

SEGURTASUN-KONTSIGNAK



Joan lehenbailehen gora den puntu batera, ibaia gurutzatzeko.



Zoaz hurbilen duzun elkartze-puntura, Herriko Etxearen oharpenei jarraituz.



Ez erabili ibilgailua eremutik ateratzeko.



Entzun irratia. Errespetatu agintarien jarraibideak.



Ez haurren bila joan eskolara, haiek arriskuan ez ezartzeko.



Ez deitu telefonoz, lineak sokorrientzat libratzeko.

⚠ Inguru arriskutsuak

Xoldokogainako urtegia udalerraren hegoaldean dago, Arrola errekatik gora. Urtegi horrek edateko urez hornitzea ahalbidetzen du; Euskal Elkargoaren esku da horren segimendua eta mantentzea.



LUR MUGIMENDUEN ARRISKUA

SEGURTASUN-KONTSIGNAK



Atera berehala eraikinetarik.



Bazterretara ihes egin, isurketaren ardatzetik ahalik eta lasterren urruntzeko.



Igan gora den puntu batera, arriskutik kanpo jartzeko.

⚠ Inguru arriskutsuak

Lerratzeko / higatzeko arriskua handia dago Erlaitzeko bide osoan zehar.


Lur mugimenduen arriskua luraren edo lurpearen lekualdatze-multzo, guti edo aski, bortitzen ondorioa da; jatorri naturalekoa edo antropikoa izan daiteke. Hainbat mota bereizten dira: lur-lerratze, bloke-erorketa, itsasertzaren higadura, lur-lehertze, lohi-isurketa, buztinen uzurtze-hantzea. Arrisku hori eragin edo areagotu egin daiteke euri erauntsi handiekin edo izozte/urtze aldien segida gertatzen delarik.



SISMIKOA ARRISKUA

Lurrikara bat lurzorua-
ren inarrosaldia da, plaka
tektonikoen mugimen-
duengatik. Lurrikaren in-
tentsitatearen eta iraupe-
naren arabera, lurrikarek
kalte nabarmenak eragin
ditzakete eta biziak ar-
riskuan jar ditzakete, baita
galera ekonomikoak eta
komunikatzeko zailta-
sunak sortu ere.

SEGURTASUN-KONTSIGNAK



Urrundu
leihoetatik.



Inarrosaldiaren
ondotik, sareak eten,
ez erre.



Kanpoan, urrundu
eraikuntzetatik, linea
elektrikoetatik.



Ahal bezain laster, bat
zoaz hurbilen duzun
elkartze-puntuara.

**NOLANAHI ERE, ERRESPETATU AGINTARIEK EMAN SE-
GURTASUN-JARRAIBIDEAK.**



SALGAI LANJE- ROSAK GAR- RAIATZEAREN ARRISKUA

Arrisku hau salgai arriskut-
suak garraiatzean sortzen
den istripuaren ondorioz, erre-
pide, trenbide, ibai edo kana-
lizazio bidez (gasbidea, olio-
bidea, hodia, etab.) gertatzen
dena. Ondorio larriak izan
ditzake biztanleriarentzat,
ondasunentzat eta/edo ingu-
rumenarentzat, ondoko feno-
menoekin zerikusia badute:
leherketa, sutea, hodei toxikoa
askatzea, edo areago, feno-
meno horiek konbinatzean.

LES CONSIGNES DE SÉCURITÉ



Ez erre. Saihestu sugarrak
edo pindarrak eragin
ditzaketen jestuak..



Hurbilen dagoen eraiki-
nean gerizatu berehala.

▲ Inguru arriskutsuak

Arrisku hori A63, D810 eta D811 errepideek eta
trenbideak udalerria zeharkatzearen ondorio da.
Halaber, gasbide batek lurraldearen hegoaldea
zeharkatzen du Ekialdetik Mendebaldera.



PANDÉMIA ARRISKUA

Pandemia arriskua eritasun baten bat-bateko hedapen zailuari dagokio, hein handi bateraino heda daitekeena, gizakia kutsatuz. Ondorio larriak izan ditzake biztanleriarentzat, eta milioika pertsonari eragin diezaiekete immunizaturik ez daudenean edo medikuntzak eriak artatzeko sendagairik ez duenean (adibidez, COVID 19).

SEGURTASUN-KONTSIGNAK



Errespetatu gomendaturiko higie-neurriak (eskuak usu garbitzea, leku publikoetan maska erabiltzea, distantzia fisikoak, etab.).



Ekidin pertsona edo/eta animalia kutsatuekiko harremanak. Zu, eri den batekin harremanetan egon bazara, edo bazaude, bakartu zaitez eta testa egizu.



Txertaketa kanpaina bat antolatzen denean, birus pandemikoaren aurka txertatu.



Eritasunaren sintoma bereizgarriak izanez gero, deitu zeure medikuari edo deitu 15era.

NOLANAHI ERE, ERRESPETATU AGINTARIEK EMAN SEGURTASUN-JARRAIBIDEAK.



BEROTE ARRISKUA

Eguneko temperaturek (egunekoak eta gauekoak), zenbait egunez, departamentuari dagokion urtaroko balio normalak baino nabarmen handiagoak dituztenean gertatzen da berote-arriskua. Ardura, beste fenomeno arriskutsu batzuk ere izaten dira: idortea eta baliabide hidrikoa agortzea, sute-arriskua handitzea, kutsadura atmosferikoa, etab.

Bero-aldi horiek ondorio larriak dituzte pertsona zaurgarrientzat (bero-kolpea, deshidratazioa, arnas arazoak...) ondasunentzat eta eguneroko bizitzarentzat (etxebizitzan aitzinaldeak arrailtzea, eremu urbanizatuen kutsadura,...).

SEGURTASUN-KONTSIGNAK



Ura erregularki edan (ez kontsumitu alkoholik).



Etxean gelarik freskoenetan egon. Hetsi kanpoko leihoak egunean zehar.



Indar fisikoak eta ateratzeak saihestu oren beroenetan.




Eman berriak ingurukoei eta hartu ingurukoengandik.



Entzun irratia eta errespetatu agintarien jarraibideak.

NOLANAHI ERE, ERRESPETATU AGINTARIEK EMAN SEGURTASUN-JARRAIBIDEAK.



Nire segurtasunaren alde

OSATU ZURE SEGURTASUN-KITA

- Piladun irritia
- Kandelak edo esku-argiak
- Janaria eta ur edangarria
- Erremedioak
- Jantziak



FAMILIA PLANA SEGUREAN IZATEKO

Segurean Ezartzeko Familia Plana (PFMS), etxe berean bizi diren pertsonak krisi-egoeretara prestatzen laguntzeko :

Deskarga daitekeen dokumentua
<http://www.mementodumaire.net/wp-content/uploads/2012/06/Pfms.p>

LES DEMARCHES D'INDEMNISATION

- Jarri harremanetan zure asurantzarekin
- Hartu kalteei buruzko argazkiak.
- Ez ezer bota adituak txostena
- Ezbeharrak deklaratu (Artamendatua, CATNAT sailkapena egin ondoko 10 egunetan)